UZKIKO ARTEKA: GOMENDIO OROKORRAK

Ekidin lehorreria dietan zuntz ugariko elikagaiak hartuz: fruta, barazkiak, zereal integralak eta lekaleak. Aurreikusten baduzu dieta ez dela nahikoa izango, zahi-osagarri bat har dezakezu janarian sartua; eta lehorreria izateko joera baduzu, kontsultan gomendatuko dizute gorozki-boloa osatzen duten libragarriak erabiltzeko, esaterako, Plantago ovata. Edan likido asko: 1,5 eta 2 litro ur artean, egunean.

1. Egin eserleku-bainuak ur epel edo beroarekin (38 eta 40 gradu bitartean), 4 aldiz egunean eta obratu ondoren; saiatu komuneko papera ez erabiltzen. Bainua egiteko, sartu uzkia dagoen aldea uretan, 5-10 minutuz. Bainuaren ostean, lehortu eskuoihal batekin ukituak emanez, edo erabili ile-lehorgailu baten aire beroa.
2. RECTOGESIC GEL erabiliko da 8 orduan behin, 8 aste, hasiera batean. Komeni da produktuaren prospektua irakurtzea, nola eman adierazten duen tokian.
3. Har ezazu zure medikuak preskribatutako analgesikoa, berak adierazitako jarraibideekin.
4. Jo ezazu kirurgialariaren kontsultara, adierazi dizutenaren arabera.

RECTOGESIC GEL

Indikazioak:

Gela uzkiko artekak tratatzeko erabiltzen da.

Posologia eta hartzeko era:

Gutxi gorabehera, 1 cm gel erabili behar da 8 orduan behin; jarri hatz erakuslean, eta ondoren, uzkian. Eman masajea uzki-bazterraren inguruan, EZ sartu barnean.

Hasiera batean, tratamenduari 2 HILABETE (8 aste) eutsiko zaio.

Kontrako ondorioak:

Oso arraroa da medikamentu honek kontrako ondorioak izatea. Uzki inguruko aldean erresumina igarri edo buruko edukitzea normala izaten da

Nola gorde:

Gorde medikamentua giro-tenperaturan, hezetasunaren aurrean babestua.